

BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

1998

EBAZPENA, 2023ko apirilaren 18koa, Joko eta Ikuskizunen zuzendariarena, joko-makinen eta makina laguntzaileen erregistro-liburuaren eredia onartzekoa.

Otsailaren 8ko 19/2022 Dekretuak, zeinaren bidez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan jokoaren erregelamendu orokorra onesten duen 120/2016 Dekretua, ezartzen du joko-makinen eta makina laguntzaileen operadoreek makinetan egiten diren eragiketa guztiak erregistro-liburu batean jaso behar dituztela.

Liburu horren helburua da bertan jasotzea langile baimenduek joko-makinetan eta makina laguntzaileetan egiten diren eragiketa guztiak, Ertzaintzaren Joko eta Ikuskizun Unitateari kontrola eta ikuskapena errazte aldera, indarrean dagoen jokoari buruzko araudian ezarritako instalazio- eta funtzionamendu-betekizunak betetzen direla ziurtatu ahal izateko.

ZUZENBIDE OINARRIAK

Lehenengoa.– Uztailaren 27ko 120/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoan jokoaren erregelamendu orokorra onesten duenak, 120. artikuluko 10. apartatuan, otsailaren 8ko 19/2022 Dekretuak aldatu zuen horretan, honako hau ezartzen du:

«10.– Makinetan egiten diren eragiketa guztiak –baita ustiatzen ari ez diren makinetan egiten direnak ere– ziurtatu eta jaso egin behar ditu –ahal dela, erregistroko liburu batean– horretarako baimena duen pertsona edo enpresa batek, Ertzaintzako Joko eta Ikuskizun Unitateak egiten dituenak izan ezik.

Liburu horretan honako datu hauek idatziko dira:

a) Makina bakoitzaren instalazioa, data, modeloa, serie-zenbakia eta ustiapen-baimena adierazita, bai eta enpresa operadore titularraren izena eta erregistro-zenbakia ere.

b) Makinaren kontagailuen data eta irakurketa, horiek instalatzerakoan, erretiratzerakoan edo ordezkatzekoan.

c) Joko-makina bakoitza noiz kendu den eta zergatik (ordezkatzea, matxura, baimenaren amaiera, etab.).

d) Makina erabiltzean sor daitekeen edozein gorabehera edo erreklamazio.

e) Makina ikuskatu duten agintaritzaren agenteek jasota uzten dituzten eginbideak».

Bigarrena.– Erregistro-liburua betetzea errazteko eta araudia betetzen dela ziurtatzeko, liburura sartzeko bitarteko elektronikoak erabiliko dira.

Aurreko guztia dela eta, urtarrilaren 19ko 6/2021 Dekretuak, Segurtasun Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoak, ematen dizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Joko-makinetan eta makina laguntzaileetan egiten diren eragiketak jasotzeko erregistro-liburuaren eredu normalizatua ezartzea, l. eranskinean agertzen den bezala.

2023ko apirilaren 27a, osteguna

Bigarrena.– Erregistro-liburua formatu digitalean bete behar da eta Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren helbide elektronikoa erabili behar da liburu horretara sartzeko:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0015840>

Hirugarrena.– Ebazpen hau Ertzaintzaren Joko eta Ikuskizunen Unitateari eta foru-aldundiei jakinarazi behar zaie.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen eta horren aurka, Segurtasuneko sailburuordearen aurrean, gora jotzeko errekurtoa jarri ahal da, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 121. artikuluan eta horren ondokoetan ezartzen duenaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 18a.

Joko eta Ikuskizunen zuzendaria,
AITOR MIKEL URIARTE UNZALU.

ERANSKINA

MAKINAN EGITEN DIREN ERAGIKETEN LIBURUA

- Esku hartzen duten pertsona eta/edo enpresak:
 - Pertsonaren eta/edo enpresaren izena.
 - Kontagailuen kasuan: konpontzekoa/egiaztatzekoa.
- Intzidentziaren hasiera-eguna/ordua:
- Arrazoia:
 - Makina instalatzea.
 - Kontagailuen hileko irakurketa.
 - Kentzea edo ordezkatzeta.
 - Intzidentzia:
 - Matxura.
 - Kontagailuak konpontzea.
 - Kontagailuak ordezkatzeta.
 - Jokoaren bertsioa aldatzea.
 - JIUK ikuskatzea.
 - Besterik.

Arrazoiak horiek direnean, kontagailuen balioa jarri behar da, makinaren joko-postu bakoitzeko (gehienez 10 joko-postu).

Joko-postuen kontagailuak esku hartzearen aurretik:										
	1 post.	2 post.	3 post.	4 post.	5 post.	6 post.	7 post.	8 post.	9 post.	10 post.
Sarrera										
Irteera:										
Joko-postuen kontagailuak esku hartzearen ondoren:										
	1 post.	2 post.	3 post.	4 post.	5 post.	6 post.	7 post.	8 post.	9 post.	10 post.
Sarrera										
Irteera:										

- Adierazi behar da esku-hartzearen ondoren makinak funtzionatzen duen: BAI ala EZ (erantzuna ezezkoa bada, horren zergatia adierazi behar da)
- Intzidentziaren amaiera-eguna/ordua:
- Oharrak.